

The background of the page is composed of large, overlapping geometric shapes. A large, dark grey shape occupies the lower-left and central portions, while a bright red shape overlaps it from the upper-right and extends towards the right edge. The overall composition is minimalist and modern.

Emakumeon  
Antolakunde  
Sozialistaren  
**OINARRI**  
**POLITIKOAK.**





**Itaiaren  
I. Kongresuko  
Ponentzia  
Politikoa  
2026**

**Aurkibidea.**

01.

Sarrera.

7.or

---

02.

Testuinguruaren analisia:  
emakume langileon  
zapalkuntza gaur egun.

9.or

---

03.

Emakumeon Antolakunde  
Sozialistaren ikuspegi  
estrategikoa.

13.or


---

04.

Proposamen  
politikoa.

17.or

---



# 01

---

Sarrera

Itaia Euskal Herriko Emakumeon Antolakunde Sozialista da. Guztion ongizatean eta berdintasunean oinarrituko den Estatu Sozialista dugu helburu; horrek, ordea, esplotazioan eta zapalkuntzan oinarritutako gizarte kapitalista gainditzea galdegiten du. Horretarako, gaurdanik emakume langileok bizi ditugun zapalkuntzei aurre egiteko borroka prozesuak jarriko ditugu martxan eta prozesu emantzipatzaile horretara ahalik eta emakume gehien antolatzeke eta aktibatzeke bitartekoak proposatuko ditugu.

Horren inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko, Itaiaren I. Kongresua gauzatu dugu azken hilabeteotan, eta ponentzia honen bidez, Itaiak zehaztu dituen oinarri politikoak plazaratuko ditugu: emakume langileon zapalkuntzaren azterketa nahiz zapalkuntza horri aurre egiteko norabide estrategikoaren zehaztapena eta proposamen politikoaren nondik norakoak.

# 02

---

Testuinguruaren analisia:  
emakume langileon  
zapalkuntza gaur egun

Gaur gaurkoz, ezin dugu esan emakume langilea askatu denik. Nahiz eta aurreko hamarkadan Europako estatuetan alderdi sozialdemokratek eta liberalek gobernatu zuten, eta giza eskubideen nahiz berdintasunaren diskurtsoak erabili zituzten haien politikak ezartzeko, urte hauetan zehar emakume langileon zapalkuntza eta subordinazioa mantendu egin da. Erdi-mailako klaseko hainbat eta hainbat emakumek euren egoera hobetu badute ere, milaka eta milaka emakume proletariok zapalduta eta azpiratuta jarraitzen dugu, eta egoera hori finkatu egin da bizi izan ditugun proletarizazio urteotan.

Zapalkuntza hori nabaria da hainbat esparrutan. Lan esparruari erreparatuz gero, kapitalistek emakume langilearen lan indarra debaluatzen dute. Hori horrela, asko eta asko gara lan munduan baldintza prekarioetan lanean gabiltzan emakumeak: soldata baxuagoak ditugu, lan ordu asko ez dizkigute ordaintzen, kontraturik gabe lan egiten dugu, lan partzialak egin behar izaten ditugu eta, gainera, modu kolektiboan antolatzeko ezintasunak ditugu. Horrez gain, aipagarria da emakume migranteen egoera: prekarizatutako zein sozialki debalutatutako lanak egiten dituzte. Bestalde, muturreko pobrezia bultzatuta, emakume askok sexu eta erreprodukzio merkatuetara jo behar izaten dute.

Krisi testuinguruan gainera, lan baldintzak okertzeaz gain, zerbitzuen pribatizazioek eta murrizketek are gehiago okertu dituzte emakume langileon bizi baldintzak: zaintza eta osasun sexualeko zein erreproduktiboko zerbitzuak desegiten ari dira, horien kalitatea okertuz eta zerbitzu horietarako sarbidea mugatuz. Horrek egoera okerreanean dauden emakumeei zuzenean eragiten die. Batetik, zaintza zerbitzuak familiaren esparrura itzultzearen ondorioz, emakumeon lan zama izaten jarraituko dute. Bestetik, emakumeei zuzenean eragiten diguten zerbitzuek okerrera egingo dute: ginekologia zerbitzuek edota abortu eskubideak, besteak beste.

Lan esparrutik haratago, bizi dugun pobrezia eta esplotazioa mantentzeko, beharrezkoa da emakumeok sozialki azpiratuta mantentzea eta egoera hori normalizatzea. Horretarako, emakumeon kontsumo-objektu irudia indartzen da, azken urteetan are gehiago kultura- eta sexu-industriaren bitartez (prostituzioa, pornografia, sare sozialak). Horrek, batetik, emakumeon aurkako indarkeria matxista normalizatu du, sexualki jazartzea, gutxiestea eta baztertzea legitimatzen baitu. Gainera, plataforma digitalen bidez, indarkeria forma berriak agertu dira. Bestetik, kontsumo-objektu irudi horrek, emakumeongan presio sozial-estetiko handia eragiten du, ondorio psikologiko eta fisiko basatiak eraginez.

Horrez gain, azken denboran mendealdeko oligarkiak bultzatuta eta alderdi instituzional guztien babesarekin, estatuak norabide autoritarioa hartu dute: langileon eskubide kolektiboen aurkako agenda jarri dute martxan. Horretan, faxismoak funtsezko papera du; izan ere, propaganda politikoa autoritarismoa zilegiztatzera bideratu du: langileon eskubide politikoak ukatuz, proletariotzaren aurkako diskurtsoak zabalduz eta, zehazki, langileen baitako kolektibo zaurgarrienak baztertuz eta erasotuz. Gero eta gehiago dira ultraeskuinaren ideologia zapaltzaile eta baztertzailea onartu dutenak. Horrek eragin zuzena du emakumeengan: gure eskubideen aurkako oldarraldia eta emakumeon zapaldu egoeran sakontzea. Horren adibide dira, VOXek, erasotzailez betetako alderdiak, indarkeria matxistaren aurkako neurriak atzera bota nahi izatea; PNVk kapitalisten poltsikoak betetzeko erresidentziak pribatizatzea edota, gazteen artean eragiteko gaitasun handia duten influencerrek emakumeon irudi tradizionala edo sexualizatua zabaltzea emakumearen izaera azpiratua indartzeko. Era berean, LGTB kolektiboko pertsonen aurkako gorroto diskurtsoa eta biolentzia areagotu egin dira testuinguru horretan.

Orain arte esandako guztiak emakume langileon askapena sistema kapitalistaren baitan kokatzearen mugak agerian uzten ditu beste behin ere. Izan ere, sistema kapitalista langile klasearen esplotazioan oinarrituta dagoen heinean, emakume langileon zapalkuntzatik ere elikatzen da. Hau da, emakume langileon egoera azpiratua negozio-esparru da enpresarietazako eta, horrenbestez, irabazien eta dominazio-logikan oinarritzen den sistema kapitalistak ez dauka interes objektiborik emakume langilea askatzeko.

Era berean, azken urteetako esperientziak frogatu du sistema parlamentario-burgesak ez duela emakume langileon auzia ebatziko. Alde batetik, alderdi parlamentarioek emakume langileon interesak ordezkatu beharrean, enpresa-sektoreen eta erdi-mailako klasearenak ordezkatzeko dituzte. Bestetik, estatu kapitalista ez da esparru neutrala, eta horrela ulertu behar dira Europako oligarkiari azpiratuta dauden Espainiako eta Frantziako estatuak.

Horrekin guztiarekin batera, beharrezkoa da ezkerreko alderdi erreformisten eta horiei loturik egon diren politika feministen balantzea egitea. Guk balioan jartzen ditugu milaka emakumek gure eskubideen alde egindako borroka eta ahalegin guztiak; are gehiago, horrek guztiak eskubide kolektiboak eskuratzeko (adibidez, abortuarena) eta emakumeon askapenaren aldeko kontzientzia hedatzeko balio izan zuten.

Hala ere, gaur egungo borroka parametro iraultzaileetan berraktibatzeo eta aurrera begirako proposamen ahalik eta eraginkorrenak egin ahal izateko ezinbestekoa da atzera begiratzea, aurreko esperientzien kritika politikoa gauzatzea, eta horietatik irakaspenak ateratzea.

Gauzak horrela, nahiz eta feminismoaren baitan elkarrekiko ezberdinak diren eragileak eta korronteak egon, azken urteetako politika feministetan zenbait muga nagusi identifikatzen ditugu. Alde batetik, urteen poderioz, emakumeon eskubideen aldeko borroka instituzionalizatu egin da, estatu kapitalista bihurtu dute joko-zelai, eta ondorioz, emakumeon aldeko aldarriak eta borrokak politikagintza instituzionala indartzera bideratu eta mugatu dira. Horren ondorioz, testuinguru politiko honetan ezinbestekoak diren kale mailako borrokak eta mobilizazioak indarra galduz joan dira. Horrek guztiak, beste alde batetik, borroka horrek eduki zezakeen ikuspegi sozialista-iraultzailea alboratzea ekarri du. Klase ikuspegia baztertu egin da, eta ondorioz, emakume langileon problematikak zentralitatea galdu du. Hori politika ulertzeko eta egiteko moduari lotua dago: norbanakoaren eraldaketari eta horrek gizartean eragiteari eman zaio garrantzia, neurri batean, borroka kolektiboari eta emakumeon gehiengoaren emantzipazioari uko eginez.

Emakumeon antolakunde sozialistatik bi erronka nagusi definitu ditugu. Batetik, emakume langileok antolakuntzara batzeko eta gure problematikak zentroan jartzeko emakume langileon fronte iraultzailea berrosatzea. Interes ekonomikoetatik eta agenda instituzionaletik kanpo antolatuko den frontea izango da honakoa eta, hain zuzen, emakume auziari erantzungo dion programa sozialista gaurkotuko du: testuinguruaren azterketa zorrotzera, emakume langileon beharrianetara eta momentuko gaitasun politikoetara egokitua.

Bestetik, ideia erreakzionarioen eta faxisten aurka borrokatzea, eta horretan, emakumeok agente politiko izatea. Izan ere, premiazkoa da ideia eta jarrera matxisten aurrean, kale mailan matxismoaren aurkako euste-horma indartsua sortzea, baita LGTB pertsonen bizi duten indarkeriaren eta diskriminazioaren aurka erantzun irmoak ematea ere. Esan bezala, emakume sektore zabalentzat diskurtso baztertzaille eta zapaltzaille horien aurrean alternatiba izan behar du sozialismoak, hau da, bizi dugun garai honetan emakumeontzat ideia komunistek balio eraldatzaileak eta berritzaileak ordezkatzeko lortu behar dugu.

# 03

---

Emakumeon Antolakunde  
Sozialistaren ikuspegi  
estrategikoa

Emakume langileon emantzipazioa ez da egun batetik bestera lortuko, zapalkuntza amaitzeak egun bizi dugun gizarte kapitalista amaitzea esan nahi baitu. Hau da, etekin ekonomiko pribatueta eta zapalkuntzetan oinarritutako gizartea eta estatu ereduak gainditzeko beharrezkoa da. Eta horren ordez, gehiengoaren ongizatean eta berdintasunean oinarrituko den botere ereduak eraikitzea ezinbestekoa da, Estatu Sozialista. Horrela, Itaiaren helburua guztiok bizi baldintza berdinak izango ditugun gizartea eraikitzea da: batetik, kalitatezkoak izango diren bitarteko eta zerbitzuak guztiontzat bermatuko dituen eta, bestetik, emakumeok inolako zapalkuntzarik jasango ez dugun gizartea.

Ezinezkoa da guztiok bizi baldintza berdinak izatea egungo gizarte zapaltzaileari aurre egin gabe. Kapitalismoaren baitako estatu eredueta eta instituzioetan ez dago eraldaketa sozialerako aukerarik; izan ere, estatua ez da instituzio neutro bat, mundua beren interesen arabera kudeatuko duten oligarkien eta enpresarien zerbitzura dagoen tresna baizik. Estatuaren bilakaera autoritario betean are nabarmenagoa da honakoa; izan ere, estatuaren esku-hartzea, momentuko alderdien borondateetik haratago, oligarkia handien interes ekonomikoen arabera da eta, beraz, ezin da zapalkuntzaren aterabidea izan.

Emakume langileon zapalkuntza amaitzeko aurrerapauso bat da estrategia sozialista; izan ere, emakume langileon emantzipazio osoa lortzeko eraldaketa soziala proposatzen du. Gaurdanik, marko kapitalistetatik eta programa erreformistetatik haratago bide-orri askatzailea proposatzen du, ahalik eta emakume sektore zabalenak prozesu horretara batzeko bitartekoak eskainiz.

Mugimendu Sozialistaren egiteko nagusia, fase estrategiko honetan, nazioarteko masa alderdi komunista eraikitzea da, ofentsiba politikora pasatzeko aurrebaldintza baita. Norabide horretan ekarpena egiten ari gara Itaiatik, jakitun baikara emakumeon zapalkuntzari behin betiko aterabidea emateko baldintza jendarte komunista eraikitzea dela. Elkarlotuta dauden bi elementuren bidez egin nahi diogu ekarpena aipaturiko prozesuari: Mugimendu Sozialistaren eginbeharren zentroan emakume langileon zapalkuntza bukatzea ezarrita, eta emakume langileon artean ideologia komunista orokortzeko lana eginda.

Norabide horretan, emakume langileon zapalkuntzari aurre egiteko tresna politiko eraginkorra izan nahi du Itaiak: matxismoaren aurka, emakumeok bizi dugun esplotazio ekonomikoaren aurka eta emakume langileon eskubideen alde. Horretarako, beharrezkoa izango da emakume sektore zabalen arteko elkarlana sustatzea eta zapalkuntza bakoitzari aurre egingo dieten mobilizazioak eta borrokak berraktibatzea. Horrez gain, testuinguru honetan borroka horiek guztiek faxismoari eta matxismoari ateak ixteko balioko duten subjektuak sortzea ahalbidetu behar dute.



# 04



## Proposamen politikoa

Testuinguru horretan, emakume langileon problematika erdigunean jarriko duen proposamen politikoa garatzea urgentziazkoa da. Gaur gaurkoz, emakume langileon bizitzak pobrezian eta indarkerian daude oinarrituta eta, gainera, ez dugu inolako babes politikorik horri aurre egiteko. Faxismoaren eta matxismoaren gorakada momentuan, ideologia guztietako politikariek ez dute egoera hori iraultzeko inolako programa politikorik. Beraz, beharrezkoa da emakumeon gehiengoarentzat baliagarria izango den proposamen politikoa mahairatzea eta hori aurrera eramango duen indar politikoa garatzea.

Hori horrela, emakume langileon zapalkuntza gainditzeko bide-orri politikoa garatzeari ekin diogu, programa politiko osatuago baten oinarriak dira honakoak. Hain zuzen, Itaiatik, azpian aipatzen ditugun emakumeon emantzipaziorako gakoak garatzeko konpromisoa adierazten dugu. Zeregin hori prozesu bat izango da, momentuko beharrianei eta gaitasun politikoei estuki lotua egon dena.

## **KALITATEZKO BIZI BALDINTZA BERDINAK GUZTIONTZAT:**

### **1. KALITATEZKO LAN BALDINTZA BERDINAK GUZTIONTZAT**

Gizarte kapitalistan emakumeok dugun azpiratu egoera dela eta, lan munduan lan baldintza kaskarrak inposatzen zaizkigu: behin-behinekoak, partzialak eta kualifikazio maila baxukoak diren lanak. Hori horrela, emakumeok soldata baxuak eta lan baldintza prekarioak pairatzen ditugu. Aipagarriak dira zaintza eta garbiketa sektoreko baldintzak eta, orokorki, emakume etorkinek jasan behar izaten dituztenak. Horrez gain, lanean sexu-jazarpena ere pairatzen dugu, indarkeria matxistak edonon eragiten baitigu emakumeoi.

Pertsona guztientzako lan eta bizi baldintza berdinak lortu ahal izateko, beharrezkotzat jotzen dugu pertsona guztien **soldata berdintasuna** bermatzea. Hau da, lan guztiek ez dute aitortza sozial bera, eta horregatik, lanen artean existitzen den hierarkiazioa amaitzea ezinbestekoa da.

Norabide horretan, batetik, **laneko eskubideak eta langileon eskubide politikoak bermatzea** ezinbestekoa da. Bestetik, garrantzitsua da sektore feminizatueta **azpikontratazioa amaitzea**, horrek are gehiago okertzen baititu sektoreko baldintzak.

## 2. ZAINITZA LANEN SOZIALIZAZIOA

Egun, emakumeon gehiengoak geure gain hartu behar izaten ditugu etxeko eta familiako zaintza lanak. Erdi-mailako klaseko zenbait emakumek lan horietatik askatzeko aukera izan dute, beti ere, egoera pobreagoan eta, oro har, migranteak diren emakumeak kontratatuz. Langile familietan, aldiz, lan horiek emakumeok egiten jarraitzen dugu gehienetan. Gainera, zaintza zerbitzuen pribatizazioek eta murrizketek are gehiago okertu dute egoera, zerbitzu horietarako sarbidea gero eta pertsona gutxiagok bermatu baitezakete.

Lan eta zerbitzu horien ardura **emakume langileon gain erori ez dadin**, beharrezkoa da **guztionezko zaintza zerbitzuak doakoak eta kalitatezkoak izatea**. Horretarako, zaintza sektorearen **privatizazioa amaitzea lehentasunezkoa** da.

## 3. INDARKERIA MATXISTA AMAITZEA

Emakumeok zapaldutako kolektibo izateak gure aurkako indarkeria betikotzen du, eta egunerokoan bizi ditugu indarkeriaren haimaka aurpegi: erailketak, sexu-erasoak, gutxiespenak edota tratu txarrak, besteak beste. Azken urteetan, gainera, ideologia erreakzionarioek matxismoa normalizatu dute batetik, eta bestetik, indarkeria forma berriak garatu dira plataforma digitala moldatuta. Plataforma horien bitartez, gainera, emakumeon gorputzen gaineko sexualizazioa inposatu da, eta horrek ondorio bortitzak ditu emakumeengan.

Indarkeria matxista amaitzeko gizarte zapaltzaile hau amaitzea beharrezkoa da. Norabide horretan, lehentasunezkoa da **matxismoaren normalizazioaren aurkako euste-horma indartsua sortzea, erasotzaileen inpunitatea amaituz eta erasotuak izan diren emakumeen babes materiala eta soziala bermatuz**.

#### 4. EMAKUME LANGILEON GORPUTZEN SALEROSKETA AMAITZEA

Emakume asko eta asko, pobreziaren ondorioz eta bizirauteko beste aukerarik gabe, haien gorputza saltzera behartuak dira. Sistema kapitalistak egoera hori etekin ekonomiko milioidunak lortzeko baliatzen du, sexuaren eta erreprodukzioaren industriak etengabe elikatuz.

Beharrezkoa da emakumeok plazerrerako edota erreprodukziorako objektu bihurtzen gaituzten, eta finean, gure zapalkuntza indartzen duten instituzioak amaitzea. Bide horretan, **prostituzioa eta alokairu sabelak amaitzea** lehentasunezkoa da.

#### 5. KALITATEZKO ABORTUA DOAKOA ETA UNIBERTSALA

Abortatzeko eskubidea, gaur-gaurkoz, etengabe urratzen den eskubidea da. Emakume guztiok ez dugu eskubide hori bermatuta; izan ere, emakume migrante askok zailtasunak dituzte aborturako sarbidea izateko. Gainera, abortu zerbitzua interes kapitalistetara azpiratua dago, eta haren kalitatea baino, irabazi ekonomikoak lehenesten dira. Horren adibide da Euskal Herrian abortuen ehuneko handi bat klinika pribatuetan egitea. Era berean, maila sozialean, abortatzeak estigma eragiten jarraitzen du. Horri guztiari, ideologia kontserbadoreen erasoaldia gehitu behar diogu: bai abortuaren aurkako proposamen politikoak, bai talde antiabortisten partetik mantentzen diren jazarpenak.

Pertsona ororentzako irisgarria izango den kalitatezko abortu doakoaren bidean, urgentziazkoa ikusten dugu batetik, **abortu zerbitzuaren pribatizazioa amaitzea**, interes ekonomikoak beharrean, emakumeon ongizatea lehenetsi dadin; eta bestetik, **abortuaren kriminalizazioari ateak ixtea**.

## **6. SEME-ALABAK IZATEKO BALDINTZAK BERMATZEA**

Behin seme-alabak izateko erabakia hartuta, baldintza ekonomikoek eta sozialek oztopatzen dituzte emakumeak askotan. Batetik, langileen gaitasun ekonomiko urriek eraginda eta, bestetik, seme- alaben kalitatezko zaintza bermatzeko baldintza ezak: izan gurasoek kontziliaziorako aukerarik ez dutelako, izan zerbitzu faltagatik edota horien pribatizazioatik. Horren adibide da, esaterako, kalitatezko eta doako haurtzaindegien falta. Egoera horrek zuzenean eragiten digu emakume langileoi; izan ere, emakumeengan erortzen da gainkarga handiena. Horrez gain, seme-alabak kalitatezko baldintzetan hezteko ezintasuna dute familia askok eta askok

Beharrezkoa ikusten dugu seme-alabak izateko **baldintza ekonomikoak eta sozialak bermatzea**.

## **7. OSASUN SEXUALERAKO ETA ERREPRODUKTIBORAKO KALITATEZKO ETA DOAKO ZERBITZUAK BERMATZEA**

Emakume askok gure osasun sexuala eta erreproduktiboa bermatzeko oztopoak ditugu etengabe. Ginekologia eta emaginen zerbitzuak ez dira toki askotan bermatzen, eta emakume askok desplazamendu luzeak egin behar ditugu lehen mailako zerbitzu horiek lortzeko. Gainera, zenbait gaixotasunen prebentziorako, detekziorako eta interbentziorako denborak profesionalek gomendaturikoak baino luzeagoak izaten dira, esaterako, bularreko minbiziaren detekziorako probenak.

Lehentasunezkoa ikusten dugu, batetik, **ginekologia eta emaginen kalitatezko zerbitzuak emakume guztioi bermatzea**; bestetik, beharrezko **errebisioak eta interbentzioak gomendatutako denboretan eta kalitatezko baldintzetan egitea**; eta azkenik, hilerokoari, haurdunaldiari, antisorgailuei edo menopausiari loturiko **bitartekoak doakoak** izatea.



Sozialismoak soilik aska gaitzake  
emakume langileok; era berean,  
emakumeon ekarpenik gabe, ez dago  
sozialismoa gauzatzerik!

**Borrokak merezi du!**

